

GUTUN IREKIA MARKEL OLANO (PNV) DIPUTATU NAGUSIARI ETA MAITE ETXANIZ (EA) GIZARTE ONGIZATEKO DIPUTATUARI.

Faustino Orbegozo zahar-etxeko langileok orain arte izan ditugun lan-baldintzak mantentzea nahi dugu. Hori horrela, eta asmo hori guztiz arrazoizkoa izan arren, gure aurka jarri dira Gipuzkoako Aldundiko arduradunak.

Zumarragako Faustino Orbegozo zahar-etxeko langileok udal-langileak gara, eta udaletan indarrean dagoen hitzarmen bera dugu guk. Urtean 22.000 euro jasotzen dugu, eta gogoko dugu gure lana, gogorra izan arren. Aldundiak egoitza berri bat Zumarragan eraikitzea erabaki du, gurea baino modernoagoa eta postu gehiagorekin. Hori dela-eta, gurea itxiko dute. Zer gertatuko den gurekin, ez dakigu; baina mehatxua egin digute dagoeneko: lanean jarraitu nahi baduzue, urtean 6.000 euro gutxiago kobratu, eta 70 ordu gehiago lan egin.

Gipuzkoako Aldundia harro dago, egiten duen gizarte-politika aitzindaria delakoan; baina, aldi berean, adinekoentzako zerbitzuak pribatizatzeko plana prest dauka. Eta plan horren lehenengo pausoa Faustino Orbegozo egoitza da.

1.- Aldundiaren planaren zenbait ondorio:

- Jendearentzako zerbitzua garestiagoa izango da. Aurrerantzean egoitza pribatua izango da, eta Aldundiak denon diruaz erosi beharko ditu plaza publikoak (plaza itunduak). Orain arte, Faustino Orbegozo zahar-etxeko eskaini dituen plaza guztien %96 publikoak izan dira. Egoitza berrian %60ra murriztuko dira plaza publikoak.
- Plaza-eskaera ugaltzen den bitartean, plaza publikoen eskaintza murriztuz doa. Bestalde, plaza bakoitzaren prezioa %20 garestituko da (orain 1.800 € hilean).
- Lan-baldintzak prekarizatuko dira: udal-langileak enpresa pribatura aldatuko dira (onenean ere, hori ere ez baitago bermaturik). Subrogazioa bezalako eskubideak (enpresa aldatu arren, baldintza beretan lanean jarraitzeko eskubidea) ez dituzte kontuan hartu nahi.

2.- Nor ateratzen den irabazle aldaketa horretatik:

- Negozio horretara sartzen diren enpresak: Fundación Matía eta Construcciones Moyúa. Bi enpresa horien artean Gerozerlan sortu dute. Eta Aldundiak enpresa sortu berri horri esleitu dio egoitza berriaren kudeaketa. Enpresa horrek jasoko ditu etekinak, eta plazak garestituzetik eta soldatak murriztuzetik are etekin gehiago lortuko ditu.
- Egoitza Gerozerlani esleitu zitzaion garaiko Gipuzkoako Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria, gaur egun, Gerozerlan-go zuzendari kudeatzailea da. Jakin nahiko genuke ea pertsona horrek ere galdu dituen 6.000 euro urtean, enpresa pribatura aldatzearen ondorioz.

3.- Politikariak, politikak eta gezurrak:

Bi urte daramagu subrogazioa onartzeko eskatuz, hau da, orain arteko lan-baldintza beretan jarraitu ahal izatea. Bilerak izan ditugu Zumarragako Udaletxean eta Aldundian. **Denak aritu dira gezurretan gurekin.**

- Zumarragako alkate Anton Arbuluk (PSE) lasai egoteko esan zigun, eta egoitza berrian baldintza beretan jarraituko genuela. **NON GERATU DA ESANDAKOA?**

- Diputatu nagusi Markel Olanok (PNV) bilera bat egiteko ardura hartu zuen. Biltzekoak ginen Aldundia bera, Udala eta langileok. Huts egin digu. Bilerarik ez dela izango jakinarazi digute.
- Gizarte Ongizateko diputatu Maite Etxaniz-en alderdiko (EA) Zuzendaritzatik esan ere esan digute haiek, gure egoeran izatekotan, guk egiten duguna egingo zutela. Eta hauteskundeetan hainbeste aldiz aldarrikatu zituzten politika sozialak, jendearengandik hurbilak, eta hori guztia zertan gauzatzen den galdetu diegunean, erantzun digute gauza bat dela alderdiak dioena, eta beste bat Aldundiak egiten duena.

Gipuzkoako Aldundiak bereak zituen konpromisoak ez betetzeaz gain, bete-betean jardun dute greba-eskubidea urratzen. Izan ere, Faustino Orbegozo egoitzako zahar batzuk beste egoitza batera eraman dituzte, greba-eskubidea eta itxaron-zerrendak goitik behera hautsiz.

Gatazka hau dela-eta, ongi agerian geratzen ari da zertan den Aldundiaren benetako politika soziala. Politika horren bidez, enpresaburuei milioiak opari emateaz gain (Sozietateen Zerga jaitsiz oparitu zizkieten 200 milioiak adibide), oso negozio errentagarriak eskaintzen dizkie, bertako langileen lan-baldintzen kontura eta ematen den zerbitzuaren kaltetan. Bitartean, Aldundiak superabitaz ixten ditu bere aurrekontuak (SUPERABITEKO MILIOI, GIPUZKOAKO ALDUNDIAN).

Zumarragako egoiliarak beste egoitza pribatu batera aldatzea, grebak dirauen artean, greba-eskubidea urratzea da.

Langileen aukera:

Aipaturiko guztia ikusita, langileok ez dugu besterik gure lan-baldintzen alde ekitea baino. Politikariek guretzat nahi duten gizarte-eredua ez da egokia, eta esparru horretan kokatzen da gure oraingo borroka. ELAk ez du ireki nahi beste gatazka bat gehiago, baina lan-baldintzei eusteko langilerik dagoen bitartean, hantxe egongo gara, ondo-ondoan, beti laguntzeko prest.

Zer esan behar dute horren inguruan gure politikariek?